


Gertakizun demografikoen bilakaerak sinplifikatu egin du Euskal AEko familien egitura

Euskal demografia bizi-itxaropen handiak eta ugalkortasun eta ezkontza-tasa apalek ezaugarritzen dute

1996-2006 bitarte 104.000 bat familia sortu ziren Euskal AEn, hazkunde-erritmo hori biztanleriarena baino askoz biziagoa zelarik; ondorioz, familien batezbesteko tamaina 1996ko 3,1etik 2006ko 2,6ra pasatu da, Eustaten datuen arabera.

Ugalkortasunaren eta bizi-itxaropenaren bilakaeraren ondorioz, **pertsona bakarreko familiak %61 hazi dira, eta seme-alabarik gabeko senar-emazte edo bikoteak %51 azken hamar urteetan**. Lagun bakarreko familien hazkundearen arrazoi nagusia bizi-itxaropenaren hazkundera izan da, handiagoa emakumeen kasuan, zeinak baitira familia horien %61. Seme-alabarik gabeko bikoteen familietan eragina izan du laurogeiko urteetako ugalkortasun jaitsierak: haur gutxiago, orduan horiek denak independizatu daitezten denbora gutxiago behar.

1. grafikoa. Familia moten bilakaera. 1981-2006. Euskal AE



Iturria: Eustat

Bilakaera hau bi gurasoek eta hurrek osatutako familien kalterako izan da: 1986an familien %63 ziren, 2006an %41 baino gutxiago; horrez gain, batezbesteko tamaina txikitu egin da (4,3 pertsonatik 3,7ra). Haurrak badituzten famili moten jaitsiera areagokoa litzateke gurasoenean denbora gehiago pasa ez balute. Azken bosturtekoan seme-alabak 29 urte baino gehiagorekin, batez beste, irteten dira gurasoenetik; orain hogeitaz 24,6 urte ingurukoa zen adina.

2001etik 2006ra lagun bakarreko familietan 16.000 gutxiago ditugu, baina gehiago jaitsi dira (%-30,4) aitaz eta seme-alabek osatuak amaz eta seme-alabek osatuak (%-15,4) baino.

Orain hogeita hamar urte pertsonen ia %100 ezkondu egiten ziren; gaur egun %40k baino gehiagok ezkongabe iraungo du. Gainera, lehen ezkontzaren adina igoz doa: 33,8 urte gizonentzat (1976an baino 7,2 urte gehiago) eta 30,8 emakumeentzat (1976an baino 6,6 urte gehiago).

Belaunaldien datuei begiratzuz gero ezkongabe ez direnen proportzioa, 50 urte betetzean, %86 da gizonentzat eta %95 emakumeentzat. 50eko urteetako belaunaldiak, ezkontza-historia oso-osorik ikusteko moduan gauden azkenek, jaitsiera nabarmenak dituzte ezkontza-intentsitatean, arrazoia 25-34 urte bitarteko ezkontza-tasen jaitsiera delarik.

Historikoki harremana dago batez besteko adin handiaren eta ezkontza-tasa intentsitatearen jaitsieran; biztanleriaren proportzio gero eta handiago bat betirako izango da ezkongabea.

Belaunaldien amaierako ondorengotza uneko ugalkortasun mailetara gerturatzen ari da

1956-1960 bitartean jaiotako emakumeen belaunaldiak ez du ordezkapena ziurtatzen – emakumeko 2,1 haur-; amaieran, 1,6 ondorengo izan dituzte. 15 urte lehenago jaiotako belaunaldiak 2,4 haur izan zituzten.

Belaunaldi-ordezkapenik eza azaltzen duen arrazoia hirugarren eta ondorengo seme-alaben errotiko jaitsiera da: 1946-1950 bitartean jaiotako emakumeen haurren %23 izan ziren; eta 1961 eta 1965 bitartean jaiotakoen %6.

Amaierako ondorengotzak hain baxuak dira 20 urtetan baino gehiagotan urteko ugalkortasun-adierazleak *ñimiñoak* izan direlako. 2005ean seme-alabak 1,2 dira batez beste, 1975eko 2,7tik oso urruti; ez dezagun ahantz, halere, 1994ko minimoa 0,9 izan zela.

Bizi-itxaropenak haziz dirau

Euskal AEko gizon zein emakumeek bizi-itxaropenaren etengabeko hazkundera izan dute. Orain hogeita hamar urteko adierazleak (69,6 urte gizonentzat, 76,9 emakumeentzat) ikusita, bizi-itxaropena 7,4 urtez hazi da emakumeentzat eta 7,6 gizonentzat). Urtean-urtean hiru bizi-hil irabaziz, gizonena 77,2 urtetan da eta emakumeena 84,3tan. **Bi sexuen arteko aldea orain 15 urteko 8,7ko maximotik 7,1 urtera etorri da.**

1. taula Zenbait lurralde garatutako bizi-itxaropena jaiotzean. 2005.

	Gizonak	Emakumeak
Alemania	76,7	82,0
Austria	76,7	82,3
Belgika	76,2	81,9
Danimarka	76,0	80,5
Espainia	77,0	83,7
AEB (*)	74,8	80,1
Frantzia	76,8	83,8
Grezia	76,8	81,6
Irlanda	77,3	81,7
Islandia	79,6	83,5
Italia	77,8	83,4
Herbehereak	77,2	81,7
Portugal	74,9	81,3
Britainia Handia	77,1	81,1
Errusia	58,9	72,4
Suedia	78,5	82,9
Suitza	78,7	84,0
Turkia	68,9	73,8
Japonia	78,5	85,5
Euskal EA	77,2	84,3

(*) 2003. urtean

Iturria: Eustat, Eurostat eta NBE

Tumoreak dira mehatxurik handiena bizi-itxaropenerako. **Tumoreak erabat desagertuko balira, gizonen bizitza lau urtez baino gehiagoz luzatuko litzateke, eta emakumeena hiru urte eta erdiz baino gehiagoz.** Kanpoko heriotza-kausek berriz, urtebete baino gehixeagoko bizitza kentzen diete gizonei eta lau hilabete pasa emakumeei.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es